

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4463

819/2025 EBAZPENA, irailaren 16koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez Olga Ulibarri Moreno andrea zuzendaritzako idazkariaren kargutik kentzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzako Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako Zuzendariordetzan, berak hala eskatuta.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 10eko 561/2023 Ebazpenaren bidez (2023ko ekainaren 28ko EHAA, 122. zk.), Olga Ulibarri Moreno andrea zuzendaritzako idazkari izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzako Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako Zuzendariordetzan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Olga Ulibarri Moreno andrea zuzendaritzako idazkari kargutik kentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzako Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako Zuzendariordetzan, berak hala eskatuta, eta eskerak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko irailaren 30eko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari, Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetzari eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Plangintzako eta Kudeaketako Zuzendariordetzari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 16a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL.